Bideoaren erreferentzia: Bagoaz A1B25 *Erosketa-zerrenda*
Maila: A1
Helburua: Lagunek, esaldi sinpleak erabiliz eta adostasuna eskatuz, erosketei buruz esaten diotena ulertzea.
Funtzioak: Adostasuna adieraztea, proposatutakoa onartzea edo ez.
Azken jarduera: Taldeko irteera baterako zer erosi erabakitzea, aurrekontu bat izanda.
Adierazpide linguistikoak:

- Zertarako (esplizituki adierazi gabe): *ez dago dirurik horretarako, erosketak egiteko...*
- Lexikoa:
  - Erosketa-zerrenda: *janaria, edariak…*
  - *Diruarekin lotutakoak*
  - Arrazoiak emateko: *Ez du kalterik egiten...*

1. ENTZUN AURRETIK

Hasteko, erosketak egiteko ohiturei buruz jardungo dute ikasleek. Horretarako, taula beteko du ikasle bakoitzak, galderei bai ala ez jarrita, eta gero binaka komentatu jarritakoa. Eredu batzuk dauzkate, hiztegi-espresioekin eta elkarrizketa posible bat ere. Hemengo hiztegi eta gaiak (erosketa-zerrendarena, kasu) lotura dauka ikusiko duten bideoarekin eta azken atalean egin beharko duten jarduerarekin.

Bideoa ikusi aurreko atal hau bukatzeko, komenta dezakete denen aurrean ohituraren bat.

2. ENTZUN BITARTEAN

Bideoko mezua ondo ulertu duten erreparatu. Hasieran bakarka eta gero bikoteka adostu behar dituzte erantzunak. Zuk baloratu zenbat aldiz ikusi behar duten bideoa, osorik edo zatika.

Erantzunak: 2.1) 1-c / 2-b / 3-garbitzeko produktuak: xaboia eta detergentea

2.2)

Barazkiak	brokolia, eskarola, kalabaza
Pasta	makarroiak, fetucciniak?
Fruta	sagarrak, laranjak
Besterik	esnea, gailetak, kafea...

3. ENTZUN ONDOREN

Atal honetan, eta egin behar duten azken jarduerari begira, hasteko elkarrizketan ageri diren bi gairi erreparatuko diegu: bata, eztabaida batean arrazoiak emateari eta, bestea, diruarekin lotutako espresioei. Horretarako, 3.1ean transkribatutako elkarrizketa-zatia irakurri eta bertan ageri diren arrazoiak idatziko dituzte taulan, eta 3.2an diruarekin lotutako espresioak jasoko.

Zer erosi esateko arrazoiak
Oinarrizko gauzak erosi behar ditugu: pasta
Garbi jan behar dugu
Pasta ona da kirola egiteko
Barazkiek ez dute kalterik egiten (jarrita daukate)

Diruaz hitz egiteko
Zenbat diru daukagu asteko erosketak egiteko?
Ez da diru asko aste osorako
Ez dago dirurik horretarako *(jarrita daukate)*
Moldatuko gara

3.3an, azkenik, elkarrizketaren antzeko egoera batean jarriko dira ikasleak: diru-kopuru bat dutela zer erosi eta zer ez erabakiko beharko dute. Testuingurua da taldea gau bat pasatzera doala landetxe batera, eta hara joateko, aurretik erosketak egin behar dituztela.

Erosketa horiek online egitea proposatzen da; hartara, diru-kontuak-eta era errealago batean egiteko aukera daukate (horretarako, Eroskiren online zerbitzuko lotura daukate erabilgarri, euskaraz egiteko aukera eskaintzen duena). Azken jarduera hori burutzeko, ataza honetan landutako guztia erabiltzeko aukera daukate: erosketa-zerrenda egitea, ados jartzeko eztabaidan arrazoiak ematea, diru-kontuak aipatzea...

Aurreko guztia talde txikian egin dezakete, eta gero talde osoari proposatu taldean egindako erosketa-zerrenda. Denen artean erabaki beharko dute zerrenda definitiboa.

Bideoaren transkripzioa

JOSU.— Amaia, zenbat diru geratzen da potean, asteko erosketak egiteko?
AMAIA.— Itxaron Hamar, hamabost, hamasei, hemezortzi, hogei, hogeita bi, hogeita lau… Hogeita hamar eta zentimo batzuk.
JOSU.— Ba ez da diru gehiegi aste osorako.
AMAIA.— Moldatuko gara. Nondik hasi nahi duzu? Barazkirik?
JOSU.— Ados.
AMAIA.— Brokolia, eskarola, kalabaza...
JOSU.— E, Amaia, oso diru gutxi daukagu. Oinarrizko gauzak erosi behar ditugu: makarroiak.
AMAIA.— Makarroiak? Berriz? Ez al dakizu besterik jaten?
JOSU.— Bai, baina belar hori guztia behiei eman.
AMAIA.— Josu, garbi jan behar dugu. Hidrato gutxiago eta barazki gehiago.
JOSU.— Bai. Pasta ona da kirola egiteko. Eta zu ez al zara ba kirolaria?
AMAIA.— Bai, horregatik, baina barazkiek ez dute kalterik egiten.
JOSU.— Ez, baina aurreko asteko erosketa oso xelebrea izan zen, dena kapritxoak: olagarroa, patea, ardo zuria, eta, errematatzeko, izozkiak. Eta orain diru gutxi daukagu. Noski!
AMAIA.— Ez da hainbesterako izango!
JOSU.— Ez ba! Baina gaur dena barazkiak, aurreko asteko gehiegikeria arintzeko.
AMAIA.— Eta zuk makarroiak! Zuregatik, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko, makarroiak eta kito.
JOSU.— Hori ez da egia, espagetiak ere ekarriko ditugu.
AMAIA.— Baboa! Tira, jarrai dezagun zerrendarekin.
JOSU.— Bai, baina makarroiak bai, mesedez.
AMAIA.— Ados. Eta fruta pixka bat: sagarrak, laranjak...
JOSU.— A, eta edari pixka bat ere bai. Laster festatxo bat izango dugu etxean.
AMAIA.— Josu, ez dago dirua horretarako.
JOSU.— A, pazientzia!
AMAIA.— Bueno, esnea, gailetak, kafea... A, eta garbitzeko, xaboia eta detergentea.
JOSU.— Eta kito!

****
JOSU.- Mugitu beharra daukagu, bestela dendak itxi egingo dituzte.
AMAIA.— Bai. Nora joan nahi duzu? Hipermerkatura?
JOSU.— Niregatik, hirigunera, denda txikietara. Baina zortzietan ixten dituzte.
AMAIA.— Ba mugi. Eta gero beste gauzak han erosiko ditugu.
JOSU.— Bai. A, eta fetucciniak!
AMAIA.— Ai! Pazientzia!
JUNE.— Arratsalde on! Sekulakoa gertatu zait; begira...
JOSU.— Bai, bai. Gero kontatuko diguzu, bai? Presaka gabiltza.
AMAIA.— Etorri nahi duzu gurekin erosketak egitera?
JUNE.— Ez, ez. Oraintxe iritsi naiz eta...
AMAIA.— Gero arte, orduan, June!
JOSU.— Barkatu, e!